

ONDORIO TXOSTENA

Gazteriaren parte-hartze aktiborantz: Sahara-Euskadi esperientzia-elkartrukea

*Hacia una participación activa de la juventud:
intercambio de experiencias Sáhara-Euskadi*

Saharako gazteria ahalduntzen bideoa
Vídeo Empoderando a la juventud del Sáhara

Mahai-ingurua
Mesa redonda

World Té

Martxoaren 21ean _ 21 de marzo
17:00etan _ A las 17:00h
Sala Plaza Artium, Vitoria-Gasteiz.

M21
17:00

Antolatzailea:
Organiza



Laguntzaileak:
Colaboran



Gazteriaren parte-hartze aktiborantz: Sahara-Euskadi esperientzia-elkartrukea” jardunaldiaren ondorioak

Martxo amaieran, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK), Arabako SEADen Lagunen Elkartearekin batera, “Gazteriaren parte-hartze aktiborantz: Sahara-Euskadi esperientzia-elkartrukea” jardunaldia burutu genuen Gasteizen.

Jardunaldiaren helburua nagusia Saharar gazteria eta Euskadiko gazteriaren esperientzia-elkartrukea egitea izan zen, gizartean gazteen parte-hartzea handiagoa izatea lagun dezaketen tresnak identifikatzeko.

EGK-ko presidentek, Maialen Olabek, jardunaldiari hasiera eman zion “Saharako gazteria ahalduntzen” bideoaren aurkezpenarekin. Bideo honek EGK-k, Nafarroako Gazte Kontseiluak (CJN-NGK), Kataluniakoak (CNJC) eta Espainiako Gazte Kontseiluak (CJE), batera Tindoufen kokatuta dauden errefuxiatuen kanpamentuetara egin zuen bidaiaren ondorioak jasotzen ditu.

Bidaiaren helburua saharar gazteen elkarrekin formakuntza bat eskaintzea zen, gazte kontseiluek gazteen erronka, esperientzia eta proposamenak elkartegintzaren bitartez nola lantzen dituzten transmititzera bideratua.

Bideoa ikusi ostean hiru pertsonekin osatutako mahai-inguru bat burutu zen: **Marta Ponce**, Arabako SEADen lagunen elkarteko kidea; **Luchaa Saleh** UJSARIO, kanpamentuetako saharar gazteriaren ordezkaria; eta **Feya Saleh**, Euskadiko ikasle gazteen ligako kidea. Hirurek esperientzia pertsonaletik abiatuz, elkartegintzaren bitartez landu daitezkeen arazo edo gaiak buruz hitz egin zuten. Lehenak elkartegintzaren ikuspuntutik, bigarrenak kanpamentuetako errefuxiatu bezala eta azkenak diasporan urteak daramatzan gazte bezala.



Azkenik, jardunaldia dinamika parte-hartzaile batekin amaitu zen (World Te), non publikoko jendea talde txikitan bildu genuen elkarrizketa sare informalak osatzeko, komunikazioa ahalbidetzeko, baita esperientziak trukatzeko ere.

Dinamikan hiru galdera landu ziren. Lehenengoak pertsona gazteek haien gizartean aktiboko parte hartzeko ezagutzen dituzten tresna edo bideei buruz gogoeta egitea eskatzen zuen. Bigarren galdera parte-hartzeak zer eskaintzen duen edo ze emaitza ekar ditzakeen pentsatzera zuzendua zegoen. Azken galdera elkartegintzan zentratzen zen eta honek dakartzan abantaila edo onuretan.

Jarraian dinamikan atera ziren ideia eta gogoetak aurki daitezke, jardunaldian parte hartu zuten pertsonentzat eta, baita, egun hartan landu zena ezagutzea interesatzen zaion edonorentzat.



Zein tresna edo bide ezagutzen dituzu parte hartzeko?	Zer ematen digu parte-hartzeak?	Zer eman dizu elkartegintzak?
<p>-Herriaren defendatzailea.</p> <p>-“Gaurko motibazioa biharko etorkizuna”.</p> <p>-Politikoki aktibo den gazteria.</p> <p>-Ekimen legegile herritarra</p> <p>-Adierazpen-askatasuna.</p> <p>-Kanal parte-hartzaileak zabaltu.</p> <p>-Gazteriaren kezkak ezagutu.</p> <p>-Elkarteak.</p> <p>-Nahasketa kulturala (amiztasuna ezagutzeak ulertzea eramaten zaitu).</p> <p>-Kultura eta kirol jardunaldiak.</p> <p>-Saharako historia Espainiako Historian sartu.</p> <p>-Sare sozialak</p> <p>-Ulertu: eskubide batzuk izateak zeregin batzuk dakartza eta alderantziz.</p> <p>-Sentsibilizazioa, manifestazioak.</p> <p>-Nola parte hartu: entzumen eta empatiatik abiatuz.</p> <p>-Parte hartzeko espazioak: gazte kontseiluak, asanbladak, kooperatibak...</p>	<p>-Eskubide eta laguntza sozialak.</p> <p>-Herriari ahotsa (hainbat kolektiborekin elkarrizketak).</p> <p>-Egungo sistemari begirada kritikoa.</p> <p>-Akzioa (parte-hartze politikoa).</p> <p>-Aukera-berdintasuna (onurarik ez)</p> <p>-Formatzeko motibazioa.</p> <p>-Saharako egoeraren kontzientzia.</p> <p>-Mobilizazioa, ahalduntzea.</p> <p>-Elkarrekiko aberastea.</p> <p>-Elkarteak balorean jarri.</p> <p>-Elkartasuna (helburu partekatuak landu).</p> <p>-Mezuak transmititu.</p> <p>-Boterea duenari presioa gauzatu.</p> <p>-Errealitateak ikusarazi.</p> <p>-Gauzak hoberako aldatu.</p> <p>-Parte hartzen eta ideiak elkartrukatzeko disfrutatuz.</p>	<p>-Gizartera gehitzea.</p> <p>-Eskubideak irabazi, helburuak izan.</p> <p>-Komunikazioa.</p> <p>-Barne/kanpo komunikazioa indartu (lokala/globala).</p> <p>-Finantziario zehatz baterako motibatu.</p> <p>-Hainbat ikuspegi eta puntu amankomun ezagutu.</p> <p>-Proiektuak abian jarri.</p> <p>-Laguntzak bideratu.</p>

Jardunaldiak talde desberdinetako pertsonen arteko elkarrizketa eta komunikazioa ahalbidetu zuen, bai Saharako baita Euskadiko gazteen artean. Galdera hauen inguruan gogoeta eginez, edukiak amankomunean jartzean hainbat ideia atera ziren. Guzti horiek EGK-ko Bakea eta Bizikidetzeta lan-arloko lan-ildo berriak definitzen lagunduko digute.



Zein gogoeta sortzen dizkizu jardunaldian planteatutako ideiek? Gizartean parte hartzeko beste tresnarik ezagutzen al duzu? Zure iritzia eman nahi baduzu edo EGK-k Saharan egindako lanaren gainean gehiago jakiterik nahi baduzu, jarri zaituz gurekin kontaktuan bakea@egk.org helbidera idatziz edo **943429767** telefonora deituz.